



## **EITBRAKO HIZKUNTZA FUNTSAK**

**2020-09-08**

## AURKEZPENA

---

Euskal Irrati Telebistak *EITBrako hizkuntza-funtsak* izeneko dokumentua onartu zuen 2005ean, beraren euskarazko hedabideetan erabili beharreko hizkuntza-eredua zehazteko. Dokumentu hartan emandako irizpideek orduko kezkei erantzuten zieten, eta dagoeneko ondo finkatuta daude, hala nola herritarrek nahi duten euskara erabili ahal izatea hedabide publikoetan. Komunikazioaren arloan eta euskal gizartean kezka eta ideia berriak azaldu diren eran, EITBn, aurrera jarraitu du hizkuntza-irizpideen gaineko gogoetak eta, 2019-2020 kurtsora iritsita, Zuzendaritzak 2005eko dokumentua eguneratu beharra ikusi du.

Asmoari heltzeko egokiena parte-hartzezko prozesu bat zela iritzita, lau urrats pentsatu ziren:

- 2019ko irailean, berariazko batzorde bat eratu zen lehen idazketa bere gain har zezan. Batzordeak 2020ko otsailean amaitu zuen bere eginkizuna.
- 2020ko martxoan, EITBko Zuzendaritzak aztertu zuen batzordeak ekoiztiko dokumentua.
- Ondoren, EITBren jardun-esparruko gizarte eragileei banatu zitzairen, eta 2020ko uztailearen 1ean kontraste-saio bat antolatu zen EITBren Bilboko egoitzan, haien iritzia eta ekarpenak entzuteko.
- 2020ko uztaile-abuztuetan, EITBko Zuzendaritzak saioan entzundakoaz gogoeta egin, eta dokumentuaren behin betiko bertsioa onartu zuen. Behin betiko bertsioa EITBren Administrazio Kontseiluaren 2020ko irailaren 8ko bileran aurkeztu zen, jarraian EITBko zuzendari, profesional eta ekoiztetxeetako buruei aurkezteko asmoz.

## LABURPENA

---

Euskal Irrati Telebistak euskarazko kanalak eta gaztelaniazko kanalak ekoizten ditu eta, batzuetan zein besteetan, hizkuntza kalitatez erabiltzea zaindu behar du. EITBren eta herritarren arteko harremanean hizkuntza komunikazio-tresna izan dadin, eta ez oztopo, hizkuntza-teknologiak inplementatuko ditu —besteak beste, azpidazketa—, eta hizkera inklusiboa erabiliko du. Euskara euskal gizartearen eguneroko errealitatea izanik, EITBk bere gaztelaniazko kanaletan euskara ikusgai egiten jarraitu behar du eta, enpresaren barruan, laneko harremanak eta jarduerak euskaraz gauzatzea sustatu behar du.

EITBren ikus-entzunezko eskaintzan, edonork ulertzeko moduko hizkuntza erabiliko du. Euskarazko emanaldietan, EITBko profesionalek batuan egingo dute, baina gonbidatu, aditu, lekuko eta inkestatuak batuan zein euskalkian mintzatu ahalko dira, euskaraz daukaten maila daukatela. Euskarazko fikzioan, bikoizketan eta entretenimenduan, euskalkiak pertsonaiak karakterizatzeko erabil daitezke, eta hitanoa bultzatuko da.

<b>0. SARRERA</b> .....	6
<b>1. FUNTS OROKORRAK</b> .....	10
1.1. EITB EUSKAL GIZARTE ELEBIDUNEAN .....	10
1.2. EITBREN HIZKUNTZA-EREDUA .....	10
1.2.1. Euskara-eredua .....	10
1.2.2. Gaztelania-eredua .....	11
1.3. EITBREN HIZKUNTZA-ERANTZUKIZUNA.....	11
1.3.1. Hizkuntzaren kalitatea .....	11
1.3.2. Euskararen ikusgaitasuna .....	11
1.3.3. Programazioaren irispide unibertsala .....	12
1.3.4. Hizkera inklusiboa.....	12
1.3.5. EITBko barne jarduerak .....	13
1.4. Komunikatzaileen hizkuntza-erantzukizuna.....	13
<b>2. ALBISTEAK ETA KIROLAK</b> .....	14
2.1. ALBISTEETAKO HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK.....	14
2.1.1. Ahozkotasuna .....	14
2.1.2. Hizkuntza-maila .....	14
2.1.3. Hiztun guztientzako eredia.....	14
2.2. GONBIDATU, ADITU, LEKUKO ETA INKESTATUEN EUSKARA.....	15
2.3. ADIERAZPENEN TRATAMENDUA.....	15
<b>3. EUSKARAZKO BIKOIZKETA</b> .....	16
3.1. BIKOIZKETAKO EUSKARA.....	16
3.1.1. Ulegarritasuna .....	16
3.1.2. Egokitasuna.....	16
3.1.3. Euskararen lantze funtzionala .....	16
3.1.4. Alderdi prosodiko-artistikoa .....	17
3.2. HITANOA .....	17
<b>4. EITBREN FIKZIOA</b> .....	18
4.1. BATUAREN ETA EUSKALKIEN LEKUA .....	18
4.2. FIKZIO-SAIOETAKO EUSKARA .....	19
4.2.1. Ulegarritasuna .....	19
4.2.2. Egokitasuna.....	19
4.2.3. Euskararen lantze funtzionala .....	19
4.2.4. Alderdi prosodiko-artistikoa .....	19
4.3. HITANOA .....	19
<b>5. MAGAZINAK ETA ENTRETENIMENDUA</b> .....	20
5.1. EUSKARAZKO SAIOETAKO ERREFERENTZIAZKO HIZKUNTZA.....	20



5.2. AURKEZLE ETA KOLABORATZAILE PROFESIONALEN EUSKARA .....	20
5.3. KOLABORATZAILE IZENDUNEN ETA ADITUEN EUSKARA.....	20
5.4. PARTE-HARTZAILE ETA GONBIDATUEN EUSKARA.....	20
5.5. ESKETXAK ETA PERTSONAIK.....	21
<b>6. GAZTEA.....</b>	<b>22</b>
6.1. GAZTEAKO ERREFERENTZIAZKO HIZKUNTZA .....	22
6.2. ESATARI, GIDARI ETA MUSIKA-ANIMATZAILEEN EUSKARA.....	22
6.3. IZENDUN ESATARI, GIDARI ETA KOLABORATZAILEEN EUSKARA.....	22
6.4. PARTE-HARTZAILE ETA GONBIDATUEN EUSKARA.....	23
6.5. ESKETXAK ETA PERTSONAIK.....	23

## 0. SARRERA

---

Hamarkada eta erdi epealdi luzea da enpresa-kudeaketaren ikuspegitik eta, hortaz, hainbeste denbora indarrean dagoen dokumentua ezin daiteke izan plan edo egitarau bat. Izan daiteke, ordea, denbora horretan zehar erabaki beharreko estrategia eta eginkizun zehatzei oinarria eskaintzeko gogapen bat. Halakoxe izaera du dokumentu honek, eta horregatik ipini da 'funts' hitza izenean. *EITBrako hizkuntza funtsak*, beraz, EITBren datozen urteetako egitasmoak ardatzen laguntzeko elementu bat da, helbururik edo betebeharririk ezartzen ez duena. Helburuak eta adierazleak aldian aldiko plan estrategikoan, programa-kontratuan zein bestelako egitasmoetan jaso beharko dira agiri honetan urratzen den ildoari jarraiturik.

*EITBrako hizkuntza-funtsak* telebista-generoen arabera antolatuta dago, eta hizkuntza gutxituko hedabideen hizkuntza-praktikei buruzko debateetan azaltzen diren gai gehienak hartzen ditu aintzat: elebitasuna zelan kudeatu emanaldietan; hizkuntza formala hobetsi behar den ala kolokialak ere tokia izan dezakeen; emanaldietako hizkuntzaren kalitatea noraino zaindu behar den; estandarrak hartu behar dituen emanaldi guztiak ala dialektoek ere euren tokia izan dezaketen, eta abar. Dokumentu honetan egiten diren gogoetak eta lantzen diren proposamenak testuinguru jakin baten emaitza dira eta, hortaz, ulerkera eta interpretazio egokirako, nahitaezkoa da testuinguru hori ezagutzea, hein handi batean euskararen normalizazioaren testuinguru bera dena.

Euskal Autonomia Erkidegoan, euskara normalizatzeko plangintzak hiru zutabe nagusi izan ditu 1980ko hamarkadan ekin zitzaionetik: hezkuntza, administrazioa eta hedabideak. Hirurak garrantzitsuak izanda, lehenbailehen konkistatu nahi izan zen komunikazioaren arloa euskararentzat, Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortuz Eusko Legebiltzarraren 5/1982 Legearen bidez, zeina baita euskara normalizatzeko 10/1982 Legea bera baino sei hilabete lehenagokoa.

EITB eratzeko legean jaso bezala, hedabide berriak hiru eginkizun bete behar zituen komunitatearen zerbitzuan: herritarrei informaziorako eta parte-hartze politikorako plataforma bat eskaintzea; hezkuntza-sistema osatzea, eta euskara eta euskal kultura



sustatzea eta zabaltzea. Eginkizunoi erantzute aldera, EITBk euskaraz eta gaztelaniaz eskaini ditu hasieratik informazioa, dibulgazioa eta entretenimendua eta, batik bat 1986an ETB2 sortu zenetik, eskaintza hori hizkuntzak eta kanalak bereiziz kudeatu da.

Zerbitzuaren ideia oso lotuta dago hedabide publikoen betebeharrarekin eta, garai batean, EITBk euskaldun-komunitatearekin zeukan konpromisoa ere zerbitzu moduan ulertzen zen. Azken urteetako ikerketa soziolinguistikoetako ikuspegitik, konpromiso horrek zentzu zabalagoa dauka: hizkuntzaren eta hiztun komunitatearen prestigioa zaintzea; hizkuntza erabilera-eremu berrietarako gaitzea; ez dakitenei hizkuntzara hurbiltzeko eta ikasteko aukera eskaintzea, eta abar. EITBk dagoeneko eman ditu ikuspegi zabalago horrekin bat datozen urratsak, hala nola euskara gaztelaniazko kanaletan ikusgai egitea<sup>1</sup>, hizkuntza teknologiak inplementatzea, euskara askotariko saioetarako lantzea, eta haur, gazte eta kirol edukiak huts-hutsik euskaraz eskaintzea.

Ikuspegi zabalago horretatik, gainera, EITBren konpromisoa ez da betekizun bikoitz modura ulertzen, alde batetik euskaldun-komunitatearekin lotzen duena eta beste aldetik euskara ez dakiten herritarrekin lotzen duena. EITBren konpromisoa euskal gizarte osoari dagokiola ulertzen da eta, zentzu horretan, urrats garrantzitsu eta erabakigarria egin zen 1980ko hamarkadako azken urteetan, EITBren emanaldiak Nafarroara eta Ipar Euskal Herrira hedatuz.

EITB eta, halaber, euskararen normalizazioa urratsak eginez joan diren heinean, euskal gizarteko egoera soziolinguistikoak eboluzioa izan du. XXI. mendeko bigarren hamarkadatik begiratuta, euskararen normalizaziorako politika eta plangintzek arrakasta izan dutela esan daiteke, batik bat munduko beste hizkuntza gutxitu gehienen bilakaera aintzat hartuz gero. Euskal gizartearen egoera soziolinguistikoari buruzko datuek diote azken lau hamarkadetan zehar euskararen ezagutzak eboluzio positiboa izan duela, eta erabilerak ere gora egin duela, hein apalagoan bada ere. Hala, 1974an, lau euskal herritarretatik, batek zuen euskararen ezagutza; 2016an, lautik bik. Datuak adinaren arabera xehatuz gero, igoera handiagoa izan da belaunaldi gazteetan eta, erkidegoka, Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratu dira daturik

---

<sup>1</sup> Euskara gaztelaniako kanaletan ikusgai egiteko erabakia 2013koa da, halaxe onartu baitzuen EITBren Administrazio Kontseiluak urte hartako "**Programazio Lerro Orokorak**" izeneko dokumentuan, eta erabakiari bere horretan eutsi zaio *2013ko eta 2016ko plan estrategikoan* eta EITBren Estilo Liburuan (2013, 2016, 2020).

onenak. 2016an, EAEn, 16-24 adin tarteko hamar gazteetatik zazpi bazuten euskararen ezagutza.

Erabilerari dagokionez, euskarak gorakada handia izan du eremu formalean azken 25 urteetan baina, ez-formalean, datuak bestelakoak dira. Euskararen kale-presentziak %13aren inguruan iraun du, inongo igoerarik gabe, nahiz eta berez datua txarra ez izan, batetik, teorikoki<sup>2</sup> espero zitekeen portzentajea baino altuagoa delako eta, bestetik, gaztelaniaz eta frantsesaz gainera gero eta hizkuntza gehiagorekin partekatu behar dituelako Euskal Herriko kaleak. Adin-tarteei begiratuta, euskara gehien erabiltzen dutenak haurrak dira (2-14 urte), eta adinekoen multzoan (65 urte edo gehiago), ordea, euskararen erabilera gutxituz joan da.

Halako datuen kezkaz, azken urte hauetan, euskararen erabilera bultzatzera zuzendu dira aginte publikoen zein gizarte-eragileen normalizazio-ahaleginak. Lehenik, euskararen aldeko diskurtsoa berriro egin dute hizkuntza-ekologiaren paradigman aurkituriko argudioen bidez, hala nola hizkuntza-eskubideak, gizarte-kontsentsua eta hizkuntzen bizikidetzak. Bigarrenik, norbanakoaren hizkuntza-ohituren aldaketa ekar dezaketen ekimenak abiarazi dituzte; garrantzitsuena, Euskaraldia.

Ahalegin horietan, inoiz baino elkar hatuago ari dira normalizazio-eragile guztiak. Izan ere, datu soziolinguistikoetatik harago, euskararen etorkizuna kezkarria da. Batetik, erabilera-eremuen konkistak ez du ekarri euskara gero eta gehiago erabiltzea. Horren erakusgarri argia dira euskarazko komunikabideen zabalkunde- eta audientzia-datu apalak. Bestetik, aldaketak atzeman dira herritarren ideologia linguistikoan, eta ondorioak, hainbatetan, euskararen erabileraren kalterako izan dira, oso nabarmenki hedabideen arloan. Euskalkiekiko atxikimenduak, adibidez, herri-aldizkarietan izan zuen lehen erakusleia 1990eko urteetan eta, azken hamarkada eta erdian, hedabide eta komunikazio-genero gehienetara zabaldu da, askoren iritziz euskaldun-multzo jakin batzuk euskaratik urrunarazterainoko moduan. Azken hamarkada eta erdian, era berean, globalizazioak mundura irekita egoteko behararen ideia barnerarazi digu, eta ondorioa da komunikazioan ingelesa lehenetsi dela, eta bazterrean utzi hizkuntza txikiak.

---

<sup>2</sup> Altunak eta beraren lankideek *Bat Soziolinguistika Aldizkarian* (2012, 35. or.) argitaratutako kalkulu matematikoen arabera, Euskal Herriko baldintza soziolinguistikoetan euskararako espero daitekeen kaleko erabilera % 4,9koa da.





Halako joeren aurrez aurre, gizarte-kohesioarekin eta norbanakoaren promozioarekin loturiko gaiek tokiko hizkuntza eta hedabideetara erakar ditzakete herritarrak globalizazioaren garaian. Parte-hartze sozial eta politikoa, identitatea, ezagutzaren sozializazioa, migratzaileen integrazioa, eta informazio fidagarriaren kudeaketa herritarrekin konektatzeko berebiziko aukerak dira hizkuntza gutxituentzat eta, EITB bezala, zerbitzu publiko modura sortu diren komunikazio-taldeentzat. Dokumentu honetako funtsetan, hainbat gako aurki daitezke aukera horietaz baliatzeko.

## 1. FUNTS OROKORRAK

---

Euskal Irrati Telebistak (EITBk) lau funtsetan oinarritzen du euskal gizartearen hizkuntza-normalizazioan dagokion betekizuna.

### 1.1. EITB EUSKAL GIZARTE ELEBIDUNEAN

Euskal gizartean, herritarrek euskaraz zein gaztelaniaz bizitzeko eskubidea dute; bizi ere hala bizi dira, eta Euskal Irrati Telebista eskubide eta bizimodu horren euskarrietako bat da, informazioa, dibulgazioa eta entretenimendua euskaraz eta gaztelaniaz eskainiz. EITBren eskaintza hizkuntzen eta kanalen bereizketan oinarritzen da eta, hala, ETB1, ETB3, Euskadi Irratia, Gaztea eta eitb.eus/eu euskaraz ekoizten ditu, eta ETB2, Radio Euskadi, Radio Vitoria eta eitb.eus/es, gaztelaniaz. Horrek ez du kentzen kanal elebidunak ekoiztea, hala nola, ETB4 eta EITB Musika, ezta gaztelaniazko kanaletan euskarari tokia egitea ere.

### 1.2. EITBREN HIZKUNTZA-EREDUA

Euskal Irrati Telebistak, euskal gizarte osoarentzat ari den komunikazio-taldea izanik, herritar guztiengana heltzeko moduko hizkuntza-eredua erabili behar du, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

#### 1.2.1. Euskara-eredua

Euskarazko kanaletan, EITBko komunikatzaileek, hots, irratiko, telebistako eta webeko kazetari, erredaktore, esatari eta saio-gidariak, euskara batua erabili behar dute, betiere kalterik egin gabe EITBren hedabideetara ekartzen dituzten protagonista, lekuko, aditu, gonbidatu, elkarrizketatu eta gainerako herritarrek nahi duten euskalkian eta ahal duten hizkuntza-gaitasunez aritzeko duten eskubideari.

Euskara batua deritzon eredua Euskaltzaindiak zehazten du bere arau eta gomendioen bidez. Morfologian, Euskaltzaindiak erabakitako aditz- eta deklinabide-taulak hartu behar dira aintzat. Ahoskeran, Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua izeneko araua (87.a). Hiztegian, Euskaltzaindiaren Hiztegia. Onomastikan, Euskaltzaindiak berariaz emaniko arauak (besteak beste, 32.a, 36.a, 38.a, 52.a, 92.a, 108.a, 122.a, 140.a, 145.a, 150.a, eta 155.a). Hortik abiatuta,

euskara batua ez da hizkera itxia eta zurruna. Hiztun bakoitzak bere hizkerako hitz, lokuzio, esapide eta egiturekin aberats dezake.

### **1.2.2. Gaztelania-eredua**

Gaztelaniako kanaletan, EITBko komunikatzaileek, hots, irratiko, telebistako eta webeko kazetari, erredaktore, esatari eta saio-gidariak, gaztelania estandarra erabili behar dute. Gaztelania estandarra Real Academia Españolak bere arau eta gomendioen bidez zehazten duen gaztelania-eredua da.

## **1.3. EITBREN HIZKUNTZA-ERANTZUKIZUNA**

Euskal Irrati Telebistak bere hedabideetan egiten den hizkuntza-erabileraren esanguraz jabetuta egon behar du.

### **1.3.1. Hizkuntzaren kalitatea**

Hizkuntza da komunikatzaileek euren eginkizunean baliatzen dituzten tresnetako bat, eta EITBri hizkuntza-erabileraren kalitatea bermatzea dagokio, lehenik, zuzentasuna zainduz eta, horrez gainera, garrantzitsuagoa dena, egokitasuna eta komunikagarritasuna sustatuz. Hizkuntza-kalitatea zaintzen laguntzeko, EITBk hainbat baliabide jartzen dizkie eskura bere komunikatzaileei: Euskara Zerbitzua, formazio-egitarau bat, HIKEA datu-base lexiko-terminologikoa, estilo-liburu bat eta albiste-idazketarako eskuliburuak.

### **1.3.2. Euskararen ikusgaitasuna**

Euskara euskal gizartearen eguneroko errealitatea da, eta Euskal Irrati Telebistari, hedabide gisa, errealitate hori erakustea dagokio. Horregatik, EITBk euskara ikusgai egiten du bere gaztelaniazko kanaletan, dela informazioetako protagonisten eta lekukoen adierazpenen bitartez, dela publizitatearen eta autopromozioaren bitartez, dela programetako parte-hartzaile, iritzi-emaile zein gonbidatuen bitartez, dela berariazko euskarazko tarteen bitartez. Hiru kasu dira bereziki zaindu beharrekoak:

- a) Haur, nerabe eta gazteen kasuan, euskarazko hitzei emango zaie lehentasuna EITBren hedabideetan. Helduen kasuan, berdin jokatuko da euskaraz jario erraza eta gaztelaniaz komunikazio-ahalmen murrizta dutenekin.
- b) Euskara nagusi den herrien kasuan, herriko bizitza ukitzen duten gaietan, euskarazko testimonioei emango zaie lehentasuna EITBren hedabideetan.
- c) Politikari, artista, kirolari, aditu eta gainerako aurpegi ezagunak hedabideetan euskaraz mintzatzen ateratzeak hizkuntzari prestigioa ematen diola jakitun, EITBren hedabideetan toki egingo zaie haien euskarazko hitzei, betiere interes informatiboari eta arrazoizkoak diren orekei kalte egin gabe.

Edozein kasutan, programaren arduradunen erantzukizuna da ikusleek edo entzuleek emanaldia jarraitzeko eragozpenik ez aurkitzea, EITBren Estilo Liburuak ezartzen duen moduan behar diren azalpenak, bikoizketak edo azpidatziak eskainiz.

### **1.3.3. Programazioaren irispide unibertsala**

Euskal gizarte heterogeneoan, EITBk, komunikazio-talde publiko gisa, bere produkzio guztia herritar guztiengana helarazteko ahalegina egin behar du. Hizkuntzari dagokionez, horrek esan nahi du azpidazketa, audiodeskripzioa, irakurketa automatikoa eta antzeko tresnak garatu eta inplementatu behar dituela desgaitasuna duten pertsonentzat. Euskara ikasten edo hobetzen ari diren pertsonen ere onura handia atera dezakete tresna horietatik. Horrez gainera, interesgarria litzateke berorientzat B2 mailako azpidatzen bidea esploratzea. Euskaraz batere moldatzen ez diren pertsonengan pentsatuta, aukera bat izan daiteke euskarazko saio propioak gaztelaniazko azpidatziekin eskaintzea ETB2n edo ETB4n.

### **1.3.4. Hizkera inklusiboa**

EITBn erabiltzen den hizkerak ikusgai egin behar du euskal gizartea pertsona dibertso baina berdinez osaturiko gizarte bat dela. Dagoeneko, genero-inklusiari buruzko jarraibideak landu dira EITBren gaztelaniazko kanaletarako, baina urrats gehiago egin beharra dago, bai jarraibideen lanketan bai ezarpenean, bai gaztelaniaz bai euskaraz, eta, jakina, generoa, arraza, funtzionaltasuna eta gainerako dibertsitate-zirkunstantziak aintzat hartuta.



#### **1.3.5. EITBko barne jarduerak**

Euskal Herriko enpresetan, EITB izan zen lehenetako bat langileen arteko harremanak zein laneko jarduerak euskaraz sortzen eta bideratzen. Horretan aitzindari izaten jarrai dezan, euskara-planak eramaten ditu aurrera 2013tik, bertan jasoz, besteak beste, hizkuntza-prestakuntzako ekimenak eta lanpostuei dagozkien hizkuntza-eskakizunen kudeaketa.

#### **1.4. Komunikatzaileen hizkuntza-erantzukizuna**

EITBko komunikatzaileek erabiltzen duten hizkuntzaren gaineko ardura hartu behar dute. Horrek esan nahi du, EITBra sartzeko unean euskaraz eta gaztelaniaz eskatzen zaien maila profesionala egiaztatzeaz gainera, zuzen aritzeko ezagutzak eskuratzen jarraitu behar dutela euren lan-ibilbide osoan, egokiro komunikatzeko gaitasuna garatzen jarraitu behar dutela eta, euskararen kasuan, normalizazioan dagokien eginkizunaz jabetu behar dutela.

## 2. ALBISTEAK ETA KIROLAK

---

Informatzeko eginkizunaren lehen betebeharra hizkuntza egoki erabiltzea da. Horretarako, alderdi gramatikaletatik harago, EITBko informatzaileek aintzat hartu behar dituzte albisteetako hizkuntzaren ezaugarriak; aditu, lekuko eta gainerakoen ahotsak kudeatzen jakin behar dute, eta beste hizkuntza batean datozen adierazpenei dagokien tratamendua eman behar diete.

### 2.1. ALBISTEETAKO HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Euskal Irrati Telebistako albisteetan eta kirolean erabiltzen den hizkuntzak egokia izan behar du, alegia, albiste eta kirol saioretako komunikazio-premiei ondo erantzuteko modukoa.

#### 2.1.1. Ahozketasuna

Irratiko eta telebistako ahozko kazetaritzari dagokionez, albisteak idatziz prestatzen dira, baina ahoz eta bat-batean sortzen direlako sentrazioa eman behar diete hartzaileei. Horretarako, testu idatzietan bezala, informazioa ondo antolatu behar da, eta okerrak eta akatsak zuzendu. Ahoz ari garenean bezala, alde batera utzi behar da ideia pilaketa; egokiena da perpaus bakoitzean ideia bakarra jartzea, eta perpausak modu sinplean elkartzea, sintaxi bihurri eta korapilatsuan jausi barik.

#### 2.1.2. Hizkuntza-maila

Telebistako, irratiko eta Interneteko albisteetan, hizkuntza-estiloa ez da izan behar ez oso formala, ez oso kolokiala, baizik tartekoa. Hizkuntza-maila ere ez da izan behar ez oso jaso ez zaindu gabea, baizik tartekoa.

#### 2.1.3. Hiztun guztientzako eredia

Irratiko eta telebistako albisteen hartzaileei, ulertzen lagundu behar zaie, ez baitute modurik ez testua birritan aztertzeko, ez pasarte ilunak mamurtzeko, ez hiztegiara jotzeko. Hizkuntzaren erabileran, beraz, hiztun ahalik eta gehienengana heltzeko ahalegina egin behar da, lokalismorik gabe, hitz eta kontzeptu ulergaitzik gabe, aditz forma korapilatsurik gabe, eta esapide ilunik gabe. Interneteko testu idatzietan ere, gomendagarria da berdin jokatzeko.

## **2.2. GONBIDATU, ADITU, LEKUKO ETA INKESTATUEN EUSKARA**

Euskaldunek euskara batua zein euskalkia erabil dezakete EITBren albiste eta kirol saiouetarako gonbidatu, aditu, lekuko edo inkestatu modura hitz egiten dutenean. EITBk, gainera, euskaraz egitera animatzen ditu, daukaten maila daukatela. EITBko komunikatzaileek behar den laguntza emango diete herritar euskaldunei EITBrentzat hitz egiteko orduan euren buruarengan konfiantza izan dezaten, euren hizkera balioets dezaten, eta komunikazio-arazorik izan ez dezaten. Gonbidatu, aditu, lekuko zein inkestatuen hitzak idatzira igarotzen direnean, batuan ipini behar dira, jatorrizko euskararen ezaugarriak errespetatuz baina beharrezko orraztuak eginez.

## **2.3. ADIERAZPENEN TRATAMENDUA**

EITBko kazetariak euskaraz eta gaztelaniaz behar dituzte adierazpenak albiste eta kirol saiouetarako, baina beti errespetatzen dute hitz egiten duen pertsonaren hizkuntza-hautua. Kazetariak hainbat baliabide dituzte emisio-hizkuntzan ez dauden adierazpenak programan txertatzeko. EITBren Estilo Liburuak dioen modura, printzipio orokor modura azalpena erabiliko da. Nabarmentasun bereziko pertsonak eta/edo adierazpenak, telebistan, azpidatzi egingo dira, eta irradian, testuinguratu. Aukeran, bikoiztu egin daitezke. Modu batera zein beste batera, emisioko hizkuntzan ez dauden adierazpenak ez dira ezergatik ere utziko inolako tratamendurik gabe.

### 3. EUSKARAZKO BIKOIZKETA

---

EITBrentzat egiten diren euskarazko bikoizketen helburua ikusle euskaldunak entretenitzea da eta baldintza, ikusleoi ulertze-ahalegin eta arreta gehigarririk ez eskatzea euskaraturiko produktuak kontsumitzeko.

#### 3.1. BIKOIZKETAKO EUSKARA

Jatorrizko gidoietan ez dago testurik euskarara itzuli ezin daitekeenik. Itzulpen horrek ulertze-ahalegin eta arreta gehigarririk ez eskatzeko gakoa erabiltzen den euskararen ezaugarrietan dago.

##### 3.1.1. Ulegarritasuna

EITBrentzat egiten diren bikoizketetan, hiztun ahalik eta gehienengana heltzeko moduan erabili behar da euskara, betiere jatorrizko gidoiak markatzen duen ildotik desbideratu gabe. Itzulpen-egokitzapenak ez du euskarazko testua jatorrizkoa baino ilunago, agorrago edo korapilatsuago bihurtu behar.

##### 3.1.2. Egokitasuna

Euskal Irrati Telebistarentzat egiten diren bikoizketetan, jatorrizko gidoian agertzen den komunikazio-egoera bakoitzari berariazko hizkera egokitu behar zaio euskarazko bertsioan, betiere euskara batutik eta jatorrizko gidoiaren ildotik desbideratu gabe. Itzulpen-egokitzapenak jatorrizko gidoian ageri den hizkuntza-aberastasun guztia eman behar dio euskarazko bertsioari.

##### 3.1.3. Euskararen lantze funtzionala

Jatorrizko gidoietan euskaraz ordainik ez duten hitzak, terminoak, adierazpideak eta diskurtso-egiturak agertzen badira, bikoizketa-estudioko eta EITBko hizkuntzalariek hartu behar dute horiek lantzeko ardura, bai eta sorturiko hizkuntza-baliabideak hurrengo baterako erabilgarri ipintzeko ardura ere. Bereziki, hizkera kolokialera zuzendu behar dira ahaleginak, beraren hutsunea igartzen baita umorean, publizitatean eta gazte-giroko eszenetan.



#### **3.1.4. Alderdi prosodiko-artistikoa**

EITBrentzat egiten diren bikoizketetan, ahoskera-eredu zaindua erabili behar da. Doinueran, galdegai/mintzagai jokoan oinarrituriko ereduak jorratu da azken 40 urteetan, eta egoki da bide horretatik jarraitzea. Ahotsei eurei dagokienez, jatorrizko bertsioak markatuko die zelan islatu pertsonaien izaera eta egoera.

#### **3.2. HITANOA**

Bikoizketan, oinarria zukako trataera da, eta hikakoak eta berorikakoak ere lekua izan dezakete. Jatorrizko gidietan, garbiago egoten dira berorika euskara daitezkeen egoerak, baina hitanoa erabiltzeko edo baztertzeko arrazoiak inertzia, gustu pertsonala eta ezagutza izaten dira. EITBk, berriz, hitanoa bultzatu nahi du eta, horretarako, nahitaezko ikusten du jatorrizko gidietan hika jar daitezkeen egoerak arakatzea eta baloratzea preprodukzioko zereginen barruan (txosten pilotuan).

## 4. EITBREN FIKZIOA

---

EITBren fikzio-ekoizpena askotarikoa da —irradi-nobelak, telesailak eta filmak; irratarako, telebistarako, weberako eta zinemarako; haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat— eta, ugaritasun horretan, produkzio bakoitzaren hizkuntza-eredua sortzaileek eta EITBk adosten dute, eta kontratuan jaso. Irizpide nagusi gisa, EITBk euskaraz ekoizten ditu haurrentzako eta gazteentzako produkzioak; irradi-nobelak ere bai. EITBren fikzioan, hizkuntza pertsonaiak karakterizatzeko (nortasuna agerrarazteko) ezaugarria izan daiteke eta, era berean, errealitate bat marrazteko osagaia.

### 4.1. BATUAREN ETA EUSKALKIEN LEKUA

EITBren euskarazko fikzioak batua du oinarri. Hizkuntzaren erabilera pertsonaiak karakterizatzeko eta errealitate bat marrazteko baliabidea izan daitekeen aldetik, euskalkiek ere tokia dute, kontsiderazio hauek mugatzen duten esparruaren barruan.

- a) Pertsonaia batek euskalkia edo batua erabiltzea sortzaileek EITBrekin batera hartutako erabakia izan behar da.
- b) Euskalkia erabiltzen denean, EITBren programetan hizkuntza-kalitatea zaintzeko jarraibidea bete behar da.
- c) 'Euskalki' deitura eskualde zabal bateko euskarari ematen zaio, eskualde horretako lurralde bateko aldaerari ere bai, eta baita lurralde horretako herri batekoari zein herri horretako baserri batekoari ere. Oro har, aldaera zenbat eta lokalagoa izan, jende gutxiagok uler dezake arazo barik.
- d) Batua eta euskalkiak aipatzen direnean, konfrontazio bat aipatzen dela ematen du askotan. Gogoan hartu behar da, ordea, euskalkiek badituztela euren aldaera estandarrak, eta gogoan hartu behar da, era berean, euskara batuari —Euskaltzaindiak arautzen duen estandarretik irten barik— eskualde bateko edo besteko kutsua eman dakiokeela hitz jakinak eta egitura jakinak hautatuz.

## **4.2. FIKZIO-SAIOETAKO EUSKARA**

EITBren euskarazko fikzioaren arrakastan, hizkuntza erabiltzeko modua da gako garrantzitsuenetako bat.

### **4.2.1. Ulegarritasuna**

EITBren fikzioan, hiztun ahalik eta gehienengana heltzeko ahalegina egin behar da, batua zein euskalkiak erabili.

### **4.2.2. Egokitasuna**

Euskarazko fikzioa sinesgarria izan dadin, gidoietako egoera bakoitzari berariazko hizkera egokitu behar zaio.

### **4.2.3. Euskararen lantze funtzionala**

Gidoietako egoeretan euskaraz aurretik erabili gabeko hitzak, terminoak, adierazpideak eta diskurtso-egiturak behar badira, gidoilariak eta EITBko hizkuntzalariak hartu behar dute horiek lantzeko ardura, bai eta sorturiko hizkuntza-baliabideak hurrengo baterako erabilgarri ipintzeko ardura ere. Bereziki, hizkera-kolokialera zuzendu behar dira ahaleginak, beraren hutsunea igartzen baita umorean eta gazte-giroko eszenetan.

### **4.2.4. Alderdi prosodiko-artistikoa**

Euskararen berezkozat har daitezkeen doinuera-eredu guztiak egoki dira EITBren fikziorako. Ahoskeran, berriz, eredu zaindura hurbiltzea da gomendagarriena, are euskalkia erabiltzen denean ere.

## **4.3. HITANOA**

EITBk hitanoa bultzatu nahi du euskarazko fikzioan eta, horretarako, nahitaezko ikusten du hika jar daitezkeen egoerak arakatzea, baloratzea, eta pertsonaien arteko trataeren planteamendu bat adostea sortzaileek eta EITBk.

## 5. MAGAZINAK ETA ENTRETENIMENDUA

---

EITBren irrati- eta telebista-kanaletan, programazioaren zati handi bat eskaintzen zaie askotariko magazin eta entretenimendu-saioei. Ugaritasun horretan, kanalak markatzen du programaren hizkuntza. Horrekin batera, euskara ikusgai egiteko irizpidea hartu behar da aintzat gaztelaniazko kanaletan.

### 5.1. EUSKARAZKO SAIOETAKO ERREFERENTZIAZKO HIZKUNTZA

Euskarako programetan, euskaraz dihardute aurkezle, gidari, kolaboratzaile, protagonista, aditu, gonbidatu, iritzi-emaile eta gainerako parte-hartzaile guztiek. Euskaraz ez dakien baten hitzei tokia egiteko, aldi bereko interpretazioa, bikoizketa edo azpidazketa erabiliko da.

### 5.2. AURKEZLE ETA KOLABORATZAILE PROFESIONALEN EUSKARA

Irratiko eta telebistako aurkezle, saio-gidari eta kolaboratzaile profesionalek euskara batua erabili behar dute. Oso egokitzat jotzen da bakoitzak bere hizkerako hitz, lokuzio, esapide eta egiturekin aberastea batu hori, eta ahozko jardunari bakoitzak bere euskararen doinuera ematea. Ahoskeran, berriz, eredu zaindua erabili behar da.

### 5.3. KOLABORATZAILE IZENDUNEN ETA ADITUEN EUSKARA

Magazinetan eta entretenimendu-saioetan ari diren kolaboratzaile izendunak (beste arlo profesional batean ezagun egiteagatik telebistara kolaboratzaile modura deitu direnak) eta adituak euskara batuan zein euskalkian mintza daitezke. Batuan zein euskalkian hitz egin, adituei euren arloko euskara (hiztegi eta esapide teknikoak) menderatzea eskatu behar zaie.

### 5.4. PARTE-HARTZAILE ETA GONBIDATUEN EUSKARA

Euskaldunek euskara batua zein euskalkia erabil dezakete EITBren magazin eta entretenimendu saioetan parte-hartzaile zein gonbidatu gisa agertzen direnean. Haien hitzak

idatzira igarotzen direnean, batuan ipini behar dira, jatorrizko euskararen ezaugarriak errespetatuz baina beharrezko orraztuak eginez.

#### 5.5. ESKETXAK ETA PERTSONAIK

Magazinetan eta entretenimendu-saioetan tartekatzen diren esketx eta antzezkiunetako pertsonaiak karakterizatzeko, hizkuntza izan daiteke ezaugarrietako bat. Euskarazko programetako pertsonaiek, beraz, euskara-mota ezberdinak erabil ditzakete, kontsiderazio hauek mugatzen duten esparruaren barruan.

- a) Pertsonaia batek euskara mota bat edo beste bat erabiltzea saioaren arduradunek EITBrekin batera hartutako erabakia izan behar da.
- b) Erabakitzen den euskara erabakitzen dela, EITBren programetan hizkuntza-kalitatea zaintzeko jarraibidea bete behar da. Pertsonaia C1 hizkuntza-maila baino beheragokoarekin karakterizatzen denean ez da jarraibidea bete behar, jakina, baina halako pertsonaiek salbuespena izan behar dute.
- c) 'Euskalki' deitura eskualde zabal bateko euskarari ematen zaio, eskualde horretako lurralde bateko aldaerari ere bai, eta baita lurralde horretako herri batekoari zein herri horretako baserri batekoari ere. Oro har, aldaera zenbat eta lokalagoa izan, jende gutxiagok uler dezake arazo barik.
- d) Batua eta euskalkiak aipatzen direnean, konfrontazio bat aipatzen dela ematen du askotan. Gogoan hartu behar da, ordea, euskalkiek badituztela euren aldaera estandarrak, eta gogoan hartu behar da, era berean, euskara batuari —Euskaltzaindiak arautzen duen estandarretik irten barik— eskualde bateko edo besteko kutsua eman dakiokeela hitz jakinak eta egitura jakinak hautatuz.

Haurrentzako saioetan, esketx eta antzezkiun guztiak batuan egingo dira. Euskalkiek ere lekua izan dezakete, esate baterako, gonbidatuen ahotan.

## 6. GAZTEA

---

EITBk Gaztea markaren barruan biltzen ditu audientzia gazteari zuzentzen dizkion eduki guztiak, bai Gaztea irrati-kanalaren bidez eskaintzen dituenak, bai berariazko sare sozial, app eta webguneetan eskaintzen dituenak. Gazteak, bere xede-audientziagatik eta bere edukiagatik, bi gako izan behar ditu euskararen erabileran: hizkera kolokiala, eta musikaren argota. Gazteako esatari eta edukigileek eta EITBko hizkuntzalariek hartu behar dute gako horiei erantzuten dien euskara lantzeko ardura, bai eta sorturiko hizkuntza-baliabideak hurrengo baterako erabilgarri ipintzeko ardura ere.

### 6.1. GAZTEAKO ERREFERENTZIAZKO HIZKUNTZA

Gaztean, euskaraz dihardute aurkezle, gidari, kolaboratzaile, protagonista, aditu, gonbidatu, iritzi-emaile eta gainerako parte-hartzaile guztiak. Euskaraz ez dakien baten hitzei tokia egiteko, aldi bereko interpretazioa, bikoizketa edo azalpena erabiliko da.

### 6.2. ESATARI, GIDARI ETA MUSIKA-ANIMATZAILEEN EUSKARA

Gaztean ari diren esatari, saio-gidari eta musika-animatzaile profesionalek euskara batua erabili behar dute. Oso egokitzat jotzen da bakoitzak bere hizkerako hitz, lokuzio, esapide eta egiturekin aberastea batu hori, eta ahozko jardunari bakoitzak bere euskararen doinuera ematea. Ahoskeran, berriz, eredu zaindua erabili behar da.

### 6.3. IZENDUN ESATARI, GIDARI ETA KOLABORATZAILEEN EUSKARA

Gaztean ari diren kolaboratzaile izendunak (beste arlo profesional batean ezagun egiteagatik irratiara kolaboratzaile modura deitu direnak) eta adituak euskara batuan zein euskalkian mintza daitezke. Batuan zein euskalkian, adituei euren arloko euskara (hiztegi eta esapide teknikoak) menderatzea eskatu behar zaie.

#### 6.4. PARTE-HARTZAILE ETA GONBIDATUEN EUSKARA

Euskaldunek euskara batua zein euskalkia erabil dezakete Gaztean parte-hartzaile zein gonbidatu gisa agertzen direnean.

#### 6.5. ESKETXAK ETA PERTSONAIK

Gaztean tartekatzen diren esketx eta antzekizunetako pertsonaiak karakterizatzeko, euskara izan daiteke ezaugarrietako bat. Euskarazko programetako pertsonaiek, beraz, euskara-mota ezberdinak erabil ditzakete, kontsiderazio hauek mugatzen duten esparruaren barruan.

- a) Pertsonaia batek euskara mota bat edo beste bat erabiltzea saioaren arduradunek Gazteko Zuzendaritzarekin batera hartutako erabakia izan behar da.
- b) Erabakitzen den euskara erabakitzen dela, Gaztean hizkuntza-kalitatea zaintzeko jarraibidea bete behar da. Pertsonaia C1 hizkuntza-maila baino beheragokoarekin karakterizatzen denean ez da jarraibidea bete behar, jakina, baina halako pertsonaiek salbuespena izan behar dute.
- c) 'Euskalki' deitura eskualde zabal bateko euskarari ematen zaio, eskualde horretako lurralde bateko aldaerari ere bai, eta baita lurralde horretako herri batekoari zein herri horretako baserri batekoari ere. Oro har, aldaera zenbat eta lokalagoa izan, jende gutxiagok uler dezake arazo barik.
- d) Batua eta euskalkiak aipatzen direnean, konfrontazio bat aipatzen dela ematen du askotan. Gogoan hartu behar da, ordea, euskalkiek badituztela euren aldaera estandarrak, eta gogoan hartu behar da, era berean, euskara batuari —Euskaltzaindiak araututako estandarretik irten barik— eskualde bateko edo besteko kutsua eman dakiokela hitz jakinak eta egitura jakinak hautatuz.